ALTZA XIV. ETA XV. MENDEETAN

Iñigo LANDA IJURKO
Juan Carlos ETXEBESTE GONZALEZ

Altza en los siglos XIV y XV. Los siglos XIV y XV fueron dos siglos de cambios profundos en Gipuzkoa y también en Altza. Uno de los más importantes fue la roturación de nuevas tierras, especialmente a partir del siglo XIV, lo que dio lugar al nombre de Artiga con el que se conoció a una parte de Altza durante cien años. Los hidalgos rurales moradores en la Artiga fueron los promotores de la primera articulación institucional, la parroquia de San Marcial. La parroquia, además de los fines religioso que le son propios, cumplía también la función de reforzar el control de la villa de San Sebastián sobre su entorno, especialmente frente a la presión de Rentería que aspiraba a un mayor control sobre el puerto de Pasaia y su entorno. Asimismo, la parroquia dio forma institucional al concejo abierto que existía con anterioridad y que se reunía en el campo de Estibaus para tratar asuntos administrativos y de gobierno. Por último, además de la Artiga de Alça, *hay otras realiadades que también forman parte de Altza: las propiedades rurales de la familia Engómez en Uba (y más tarde en Gomistegi); Molinao o* molino nuevo de Alça *propiedad del Convento de San Bartolomé; y Pordeplat y el puerto de* La Herrera *como punto neurálgico de comunicaciones ya en la Edad Media. Este trabajo se ha elaborado en base a dieciséis documentos con referencias directas a Altza que van del año 1362 a 1500.*

Aurreko Hautsa Kenduz aldizkarian[1], mendeetan zehar gure inguru hauek izendatzeko erabilitako toponimoen bitartez, Altzak Erdi Aroan izan zuen espazioaren okupazioa eta bilakaera sozio-ekonomikoaren zirriborro bat azaltzen saiatu ginen. Ikerketa horretan, funtsean, eboluzio historikoaren hiru etapa azaldu genituen, bakoitzaren zenbait alde interesgarri azpimarratuz eta azterketa berrientzako hainbat bide zabalduz. Oraingo saio berri honetan, aipatutako lanean azaldutako azken etapari heldu nahi diogu, Artigarena hain zuzen. Baina, Altzako XIV. eta XV. mendeetan murgildu aurretik, beharrezkoa ikusten dugu hiru etapa horiek laburbiltzea, gaiaren nondik-norakoa ikusteko lagungarria izango delakoan.

1.- Ikus HAUTSA KENDUZ II, Altzako Erdi Aroa izenez izen, 69-84 or.

Ibilbide baten hiru etapa

Lehengo etapan, XI. mendearen hasieran, "cubilare" edo sarobe izenak aurki genitzakeen idatzizko agirietan (Yrurdita, Anaizoz, Albizungo), abelazkuntzan oinarritutako gizarte baten adierazgarri eta, abelazkuntzaren izakera mugikorra dela eta, bazter dezakegu Altzan auzune egonkor bat osatuta zegoenik. Aldiroko erabilpena zeukaten etxaldeak besterik ez ziren izango.

Bigarren momentu batean, XII. mendearen erdialdean, "Alça et Soroeta" bere "pertenentias e pesquerias"-ekin agertzen zitzaizkigularik, auzune bat osaturik aurki dezakegu jada, bere jabetza eta eremua nolabait zehazturik zituena. Etxe multzo txiki hau, lurralde mugatu batekin (pertenentias) eta ustiapen ekonomiko mixto batekin (abelazkuntza, nekazaritza xumea, eta "pesquerias" batzu), Urumea eta Oiartzun ibaien inguruan zeuden beste auzunen garaikidea izango zen eta, haiek bezala, bailara baten partaidea. Bailara hitza ez dugu ulertu behar bere zentzu fisikoan, baizik eta etxe-multzo ezberdinen antolamendu era bat bezala. Dauzkagun datuekin, zalantza gutxi izan dezakegu Altza garai hartan zein bailaratan zegoen kokaturik. Aztertzen baditugu Erdi Aroko eliz-barrutien banaketa (Altza Iruiñekoa, Errenteria Baionakoa), herrien arteko mugen bilakaera, edota euskalkien banaketa bera (Altzan gipuzkeraz hitzegiten den bitartean, Errenterian goinafarreraz mintzatzen baitira), duda izpirik gabe baiezta dezakegu Altza Hernaniko bailaran zegoela kokaturik.

Hiribilduen sorrerak[2] erabat aldatu zuen bailaren antolamendua. Donostia sortutako lehen hiribildua izan zen eta, jarraian, 1180. urtean jaso zuen forua, Gipuzkoako kostan dauden beste herrietara zabaldu zen, besteak beste, Hondarribia (1203), Getaria (1209), Motriku (1209) eta, beranduago, Errenteriara (1320). Erregeek Gipuzkoan hiribilduak sortzeko bi foru eredu erabili ohi zuten, Logroñokoa edo Lizarrakoa. Gorago aipatutako kasuetan, Deba salbu, kostaldeko guztietan bezala, Lizarrako eredua ezarri zen. Eredu honen arabera, erregeek hiribildu bat sortzen zutenenan auzune berri bat (ex novo) sortzen zuten beste auzune edota jauntxoen aurrean, hiribildu berria pribilejioz jantziz eta, pribilejiorik nagusiena emanez, hots, lur-eremu eta bertan bizi zen jendearen gaineko jurisdikzioa emanez. Honen ondorioz, bailaretan zeuden auzuneen artean iherarkia berri bat nagusitu zen hiribildua eta gainontzeko auzuneen artean, hots, hiriharresi barneko auzokide eta harresitik kanpoko auzokideen artean.

Altzari dagokionez, XIII. mende osoan agirien aldetik ixiltasuna da nagusi eta XIV. mendearen bukaera arte itxoin beharko dugu, **"Artiga de Alça"** izena azaldu arte, alegia, agirietan berriro protagonista izateko. Aurreko idazlanean nekazal iraultzaren konstatazioa egin eta iraultza honetan gaskoin populuak izan zuen protagonismoa azpimarratzearekin konformatu ginen eta zenbait galdera eta gai garrantzitsu eta interesgarri erantzun eta azaldu gabe utzi ere. Oraingo honetan, hain zuzen, hau egitera gatozkizue, datu ezagunak eta berriak eskuan dauzkagula, galdera zaharrei erantzun berriak ematera eta, aldi berean, galdera berriak planteatzen saiatzera, beti ere, Altzako XIV. eta XV. mendeen irudi osoago bat eskeintzeko asmoz. *"Porque los mismos muertos cambian de postura, cambian de expresión, cada vez que los vivos cambiamos de pensamiento y renovamos nuestras ideas y nuestros métodos para interrogarles, para mirar."*[3]

Oinarri dokumentala

Lan hau baliagarria izateko agirietan oinarrituta egon behar du eta, arrazoi honengatik, eman behar izan dugun lehenengo pausua egiteke zegoen agiri bilketa-lanarena izan da. Denetara, hama-

2.- Ikus ARIZAGA, Urbanística medieval..., 13-35 or.
3.- Jorge OTEIZA, "Quousque tandem...!"

sei agiri eskuratu ahal izan dugu, denak oso interesgarriak eta, haien artean batzuk, berebizikoak. Egin dezagun, beraz, aldez aurretik, agirien aurkezpena[4], ondoren azterketara pasatzeko.

Dauzkagun XIV. mendeko agiririk zaharrenak **Gomis familia**ren inguruan sortuak dira, eta horien artean interesgarriena, Martin Gomis-en testamentua da. Testamentua, Donostian 1362ko uztailaren 30ean sortua da, gaskoineraz idatzita eta Donostian hizkuntz honetan geratzen den bakarra dugu. Gomis (edo Engomez) familiak berebiziko garrantzia izan du Donostiako historian eta, geroago ikusiko dugun legez, lotura oso estua izan zuen Altzarekin ere. Agiri interesgarri honetan, azaltzen zaigu nola Gomis familiak hiri barruan zituen jabetzak ezezik, aldirian (hiriaren inguruko auzo edo herrisketan) ere bestelako jabetza garrantzitsuak bazituen, Ubako basoa eta ibarra hain zuzen.

San Martzial parrokiaren sorreraren inguruan sortutako agiriak oso garrantzitsuak ditugu erebai. San Martzial parrokia 1390ko urtarrilaren 10ean sortu zen, Martin Zalbako Iruñeako apezpikuaren aginduz, eta ondoren, beste bi dokumentu etorriko zaizkio jarraian, Altzako Artigako biztanleek emango duten ahalmen-gutuna eta, Altzako Artigakoek Santa Maria eta San Bizenteko kabildoarekin sinatu zituzten kapitulazioak. Dokumentu hauek leku-izeneren bat eta altzatarren abizen zerrenda mamitsu bat eskeintzen digute baina, batez ere eta hau azpimarratu nahi genuke, elizaren sorrerak altzatarren lehen antolamendu instituzionalaren seinale daukagu. Pasai San Pedroko eliza sortuko denean, 1457. urtean, San Martzial parrokiarena eredutzat hartuko da Donostiako elizekin konkordia edo hitzarmena sinatzeko garaian.

Laburra baina esanguratsua dugu Gipuzkoako Ermandateak, probintziaren defentsarako deialdiari probintziak eman behar duen erantzunari buruz, 1397. urtean emandako agiria. Bertan, Donostiako nukleoak zeintzu ziren esaten zaizkigu: harresi barruko hiria, Altza, Igeldo, eta Ibaeta.

Gipuzkoa, 1400. urterako jada, hiri mapa batean zegoen oinarriturik. Espazioa kontrolatzeko modu honek, **mugak** oso ondo zehaztuak edukitzea suposatzen zuen eta, ondorioz, hiriek mugaketa lanari ekin behar izan zioten, mugaketa horiek agirietan ziurtatuz. 1409. eta 1425. urteetan *Villanueva de Oyarçun*-go (geroago Errenteria deitua) udalak Murgiako Jaunarekin (Astigarragako jauna) mugak zehaztuko ditu. Mugaketa hauetan, istilu eta gorabeheraz beterik, Altzakoak diren zenbait toponimo ematen zaizkigu, batez ere, gaurko San Marko eta Txoritokieta inguruetakoak.

Mugekin loturik daude ere, 1456. urtean, Lasarte eta Urdayaga jaunei emandako ahalmen-gutuna eta, ondoren, hauek emandako sententzia. Oraingo honetan, istiluak eta gorabeherak, Donostia eta Errenteriaren artean izango dira. Errenteriak Pordeplata[5] mendiraino berea zela esaten zuen bitartean, Donostiak Pontikaraino zabaltzen zuen bere lur-eremua. Sententzia honen bitartez, Errenteria eta Donostiaren arteko mugak finkatuagoak geratu ziren, lehorrekoa mugarriez zehaztuz eta Pasaiako badiaren urak Donostiarentzako utziz. Hala ere, sententzia honek ez zituen etorkizunean gatazkak saihestu eta, 1475. urtean[6], armak tartean zeudela, bataila bortitzak gertatu ziren San Martzialen eta Herreran. 1500. urtean, ordea, korregidorearen agindua izan zela medio, bide diplomatikotik bideratu zen gatazka.

Donostiako **San Bartolome** komentua ere protagonista dugu Altzako Erdi Aroan, bertan bi salmenta-agiri agertzen zaizkigularik. Batean, Martin de Estibares altzatarra eta Eskalantegi

4.- Agirien erreferentzia zehatzak izateko ikusi I. ERANSKINA.

5.- Bidebietako Guardaplata etxea Erdi Aroko Pordeplat etxearen lekukoa dugu eta, agiri honetan, Pordeplata mendia esaten duenean, Mendiolari buruz ari dela pentsatu behar dugu.

6.- Ikus GAMON, Noticias..., 261. or.

etxearen izena gogora dakarkigun Pedro d'Escalante apaiza, 1439. urtean gauzatuko den mahasti baten salmenta-agiri batean lekuko bezala azaltzen zaizkigu. Bigarrenean, bederatzi urte beranduago, 1448. urtean, Hondarribiako auzokide batek "el molino nuevo de Alça"-n duen bere zatia salduko dio San Bartolome Komentuari, Molinao izenaren lehen aipamena dugularik. Bidenabar, aprobetxatu nahi dugu San Bartolome komentuaren aipamen hau egin dugula, komentu honek Donostia eta Gipuzkoako historian izan duen protagonismoa aintzat hartzeko eta, San Bartolome muinoa eta orubea babestearen aldeko jarrera aldarrikatzeko.

Azkenik, agirien aurkezpenarekin bukatzeko, badago agiri multzo bat **sagardoa**rekin loturik dagoena. Donostiako Udal Agiritegian Altzari buruz dagoen agiririk zaharrena 1450. urtekoa da. Donostia eta Altzaren artean sinaturiko agiri honen bitartez, Altzako sagardogileei Donostian eta Pasaiako portuan sagardoaren salmenta babesten zaie. Agiri hau behin eta berriro aipatua izango da gorabeherak tartean izango direnean, adibidez 1487. urtean izango diren istiluetan.

Altza osoa ez da Artiga: Lurraldetasunaren arazoa

Ikusia dugu nola XII. mendean Altza jadanik existitzen zen, bere "pertenentia" zituelarik, hots, lur-eremu eta bertan dagoen guziaren gaineko jabetasuna ezagutzen zitzaiolarik. Beranduago, 1409. urtean, Iohan d'Artola-k, Astigarragako biztanlea, honela zioen: *"...que a el se le acaesçio en uno con los de Artiga aldea de Sant Sabastian faxer una passada sobre rason de partimiento de terminos..."*[7]. Beraz, agirietan mugaketa zehatz bat ez badugu ere, Altzari ezagutzen zitzaion kanpotik bere lurraldetasuna. Hala ere, nolabaiteko zalantzak antzematen dira agiriak irakurtzen dituguenean: Altza, zer da? Auzune bat? Lur-eremu bat?[8] GAMON bera konturatzen da honetaz, San Martzial parrokiaren sorreraz ari dela, esaten duenean: *"...siendo su destino para servicio de los habitantes, no solamente del partido o cabaña de Alza tocada en el citado privilegio del Rey de Navarra don García Ramírez, del año de 1141, sino también para los de los partidos de Huba, parte de Ulía y Polloe, según expuso el cabildo eclesiástico de la ciudad de San Sebastián en un pedimento a los comisionados del señor Obispo Yrigoyen, sobre su Plan Beneficial, aunque la población de todos estos feligreses lleva el nombre solamente de Alza."*[9]. Gure aburuz, garai honetan, garaikideek oso ondo bereizten zuten Altza baina, aitortu behar dugu badirela zenbait datu guri nahasmena sor dakigukeenak. **Artiga** izena da horietako bat.

Oso zabaldua egon da gure artean Artiga izenak, denboraldi batez, Altza izena ordezkatu egin zuenaren iritzia[10]. Ideia hau, ostera, neurri handi batean, baztertu egin behar dugu. Lehenengo eta behin, toponimo honen bizitza, Altzari dagokionez, laburra izan zelako; ehun bat urte inguru, edo gutxiago. Gainera, gutxitan azaltzen zaigu Artiga izena Altza izenarekin lotu gabe.

7.- Ikus CRESPO, Coleccion..., 142. or.; Ikus I. ERANSKINA, 6. agiria.

8.- XVII. mendetik anexionatua izan den arte, Altzak bere lur-eremua oso ondo zehazturik izan duela zalantzarik ez dago (ikus UBILLOS, Estudio...). Urbanizazio basatia izan da, ordea, kolokan jarri duena Altzaren lurraldetasuna, batez ere, iragana hurbila ere ikusi nahi ez dutenen artean.

9.- Ikus GAMÓN, Noticias..., 47. or.

10.- Ikus ELEJALDE, "Parroquia...", 23 or.: *"Este topónimo fue perdurando y, no sólo anteponiéndose al del poblado, "las Artigas de Altza", sino que hasta sustituyéndose durante algún tiempo, de modo que el primer topónimo vino a sustituir al segundo, convirtiéndose los altzatarras en los habitantes de la Artiga."*

11.- Ikus I. ERANSKINA, 2. agiria: *"...in silla sculo de **Artiga** prope villam Sancti Sebastiani in Guipuzcoa..."*

12.- Ibidem, 3. agiria: *"...moradores en la **Hartiga** e vezinos de la villa de San Sevastian..."* Agiri honen sarreran, hala ere, "moradores en las Artigas de Alza" direla argitzen du.

13.- Ibidem, 6. agiria: *"...y dixo mas el dicho Ihoan d'Artola anandiendo el juramento que fecho avia que a el se le acaesçio en uno con los de Artiga aldea de Sant Sebastian faser una passada sobre rason de partimiento de terminos..."*

Denetara, hiru alditan besterik ez: Parrokiaren sorreran, latinezko testuan, 1390. urtean[11]; San Martzial parrokiazaleen ahalmen-gutunean, urte berean[12]; eta Astigarragako mugaketa batean, 1409. urtean[13]. Beste kasu guztietan elkarrekin agertzen dira edo, gehienetan, *Alça* izena bakarrik. (Ikus I. taula)

Gure ustez, Artiga izan zen momentu batean Altzako zati bati jarri zitzaion izena. Altza bere osotasunean ikusiko bagenu, inguru berean errealitate ezberdinak aurkituko genituzke:

- Aipatutako **Artiga,** bertako kapare edo aitonen semez osaturik, bizimoduz nekazariak, abereak eta baratzak etxebarruko kontsumorako zeuzkatenak, eta irabaziak sagardoaren produkzio-gehigarriaz lortzen zituztenak.
- Donostiako hiribilduan erroturik zeuden **nagusiak** baino aldirian ere propietateak (etxeak, basoak, lurrak, errotak...) zeuzkatenak. Nagusia pertsona bat izan zitekeen (Engomez famili-burua, kasu), ala kolektiboa (San Bartolome komentua). Nagusi hauen irabazkin handienak merkataritza eta industriatik (burnia...) zetorzkien baina, aldirian dauzkaten jabetzetatik datozkienak, urriagoak izan arren, oso garrantzitsuak ziren ere, batez ere koiuntura kaskarretan. Azpimarratzekoa da nola jabetza hauek zenbait errenta mamitsu eman ezezik, nagusiek gizartean zeukaten estatusa ere handiagotzen laguntzen zieten.
- Beste hirugarren egoera bat aurkitu ahal dugu, hain zuzen, zenbait orube edo familia, maila ertainekoak, nagusi baten menpekotasunetik libre, eta portuarekin loturiko iharduera ekonomikoetan murgilduak (garraioa, ontzigintza...).

ARTIGA IZENAREN ERABILPENA XIV ETA XV. MENDEETAKO AGIRIETAN

urtea	agiria*	aipamena
1390	2	Artiga
1390	3	Artigas de Alza Artiga
1396	4	Artigas de Alza tierra[1] de Alça
1397	5	Alça
1409	6	Artiga
1439	8	artiga d'Alça
1448	9	Alça
1450	10	tierra de Alça
1456	11	Alça
1458	13	Alça
1487	14	tierra de Alça
1489	15	Alza

* Agiriaren zenbakia I. eranskinean azaltzen den agiri zenbakiari dagokio.

Beraz, hiru egoera hauek osatzen zuten Altza, hots, Artigako San Martzial parrokiaren inguruan bildutako aitonen semeen jabetzak eta hiribilduko zenbait nagusiren jabetzak. Alabaina, Altza bat zen, eta honela isladatzen da agirietan ere. Gipuzkoako Ermandateak[14] 1397. urtean emandako ordenantza batean, Donostia lau zatitan bereizten du argi eta garbi: harresi barruan dagoena, Altza, Igeldo, eta Ibaeta. Zentzu honetan, Donostiako udalak sagardoaren salmenta erregulatzeko 1450. urtean egindako kontratoan[15] dioenean: *"...que agora y de aqui adelante los moradores que son en la dicha tierra de Alça y fueren de aqui adelante que de las sidras que hovieren de sus heredades y han y hovieren en la dicha tierra de Alça que sin pena alguna puedan dar a los nuestros veçinos del Pasaje..."*, ez da Artigako biztanleentzat soilik ari, Altzako biztanle guztientzat baizik.

Artiga toponimoa eta bere hedadura

Artiga izenak euskaraz **lur berria**[16] esan nahi du, hau da, zuhaiztia zegoen lekuan arbolak eta sasiak kendu, sustraiak atera, erre, eta nekazaritzan aritzeko prestatu. Hitz honen jatorria gaskoina[17] da eta, egia esan, oso ugaria da Gaskonia aldean baina, esan behar dugu ere, izen hau eta bere eratorriak oso zabaldua daudela Pirineoen bi aldeetan, Kataluniatik Euskal Herriraino.

Euskal Herrian leku-izen[18] honek zein hedadura duen bilatzen badugu nahikoa eskasa dela ikusiko dugu: Irunen Behobia auzoan dauden Artigazar eta Artigaberri baserriak; Donostian, *Artiga de Alça* eta *las Artigas* izen zaharrak, gaur dagoeneko galdurik; Bizkaiko Ipazter herriko auzoa den Articas; Bermeoko Artiga auzoa; Bilbon Artigas auzoa, aintzinean *Artigas de Bujana* edo *las cuatro Artigas;* azkenik, Iruñeako inguruetan dagoen Antsoain udal derminoan ere Artica aurkitzen dugu.

Artiga hauetatik Bilbokoa eta Antsoaingoa dira gure ustez interes handiena daukatenak. Bilbokoa, hiribildutik urrun xamar dago eta, betidanik, Bilboko juridikziopean egon bada ere, garai zaharretatik, bertan bizi ziren biztanleen artean *fidel* izeneko kargu bat izendatua izaten zen bertako arazoak gestionatzeko. Antsoaingoa, bestalde, are interesgarriagoa da guretzat, Altzako Artigarekin zenbait puntu amankomunean baitauzka. Artica (beste garaietan Artiga deitua ere) herriak duen parrokia San Martzelo zaindaritzapean dago eta, dagoeneko 1406. urtean, Karlos IIIa, nafar erregeak, laguntza eskeini zion *San Marzal* eliza konpontzeko[19]. Hau da, badaukagu garai berean (XV. mende hasieran), izen bereko bi herri (Artiga), hiribildu baten inguruan kokatuak (Donostia eta Iruñea), eta parrokia saindu beraren zaindaritzapean dutela (izenez behintzat, Altzakoari ere Erdi Aroan *San Marzal* esaten baitzitzaion). Orain kuriositate moduan azaltzen dugun hau, agian, gerora datu berrien iturri bilaka daiteke.

14.- Ibidem, 5. agiria: "...que los de toda la dicha hermandad de Guipuzcoa ni alguno d'ellos no sean tenidos ni obligados de yr al apellido ni seguir mas de una legoa del lugar donde cada uno son moradores por cosa que acaezca a los vezinos de San Seuastian, conbiene a sauer a los que moran dentro en el cuerpo de la villa o en Alça o en Ygueldo, Ybaeta dentro en el termino de la villa..."

15.- Ibidem, 10. agiria.

16.- Ikus ENCICLOPEDIA..., Artiga hitza: "...ausiberri (c...), lanbarri (B), laiabarri, lubarri (B), luberri (G,AN,S), laaki (G,BN), labaki (G,AN,L,BN), berro (AN,BN,S,R), arteaga (BN), laiaberri (R)."

17.- Ikus COROMINAS, Diccionario...: "ARTIGA, arag. 'roza, terreno roturado', palabra común con el catalán, la lengua de Oc y el valón, de origen prerromano. 1ª doc.: Ant (artica, artiga). (...) El oc. artiga (hoy artigo, -ijo) es gascón, lemosín y languedociano, en sentido amplio (...).

18.- Ibidem, ondoko hitz hauek: Artica, Articas, Artigas, Artiga, Artigazar, Artigaberri, Artigas, Artiga de San Sebastián.

19.- Ikus YANGUAS, Diccionario..., Artica sarrera.

Konklusio gisa, esan dezakegu Artiga hitzak luberritzea esan nahi duela, jatorri gaskoina duela, eta izen honen presentzia Euskal Herrian eskasa izanik, gehien bat kostaldean aurkitu dezakegula, beti ere, hiribildu baten inguruan. Baina, noiz hasi ziren luberritzen? Zerk bultzatu zuen luberritze prozesua? Zer eragin izan zuen gizartean eta espazioaren antolakuntzan?

Artiga XIV. mendeko krisiaren kontestuan

Oso zaila egiten zaigu zehaztea Altzan zein momentutan hasi zen luberritze lana. Oro har, onartuta dago XI. eta XIV. mende bitartean, jendetzaren ugaltze nabarmena suertatu zela Europa osoan. Jendetza honen handitzeari eusteko elikagaien produkzioa handitzea nahitanahiezko baldintza zen eta, momentu horretan nekazaritza intentsiboa ahalbideratuko zukeen teknikarik erabili ez zenez, lur berriak lortzea baino ez zitzaien geratzen. Lur berriak lortzeko bi bide zeuzkaten: alde batetik fadurak eta zingirak lehortuz, lezoien (paretak) teknika erabiliz; bestetik, zabalduena, basoan arbolik gabeko tarteak lortuz.

Luberritze lan hauek aurrera eraman zituztenak, jauntxoak baino, nekazari txikiak izan ziren, zeinek luberri horiek ematen zituzten irabazkinak jauntxoengandik izkutatzea lortzen zuten, beraien bizimodua nabarmenki hobetuz[20]. Bilakaera hedakor honek, aldaketa ezagutu zuen XIII. mendearen amaieran, eta erabat nabarmena izan zen XIV. mendeko lehen erdialdean, 1348. urtean "izurri beltza" Europa osoan zabaldu zenean. Hilkortasun oso handia izan zuen izurrite hau **krisia**ren arrazoi bat baino krisiaren ondorio eta sintoma latza izan zen.

Krisia, oro har onarturik dagoenez, ez zen krisi ekonomiko bat soilik izan, feudalismoaren krisia baino, hau da, nagusiak, hiriak eta nekazarien arteko produkzio harremanen krisia. Nagusiek jasan behar izan zuten sortu berriak ziren hiriek —merkataritzen eta industrian oinarriturik— gero eta eragin handiagoa zeukatela eremu ekonomiko eta sozialetan; nagusientzako errentak jeitsi egin ziren orobat. Nekazariek, bestalde, estualdi eta presio ikaragarriak sufritu behar izan zituzten (uzta kaskarrak, nagusien indarkeria...), beraien bizimodua nabarmenki okertuz. Egoera honek **bortzakeria**ren nagusitasuna ekarriko zuen, bai nagusien artean, bai nagusiak eta hirien artean, baita nagusiak eta nekazarien artean ere.

Gure txokora itzuliz, bilakaera hori hemen nola isladatu zen jakitea ez da batere erraza. Agidanez, XII. mendean, Gartzia Ramirez nafar erregearen eskeintzean aipatzen den Soroeta[21] toponimoa nekazaritzaren hedaduraren aurrenetako berria ematen ari zaigu. Data honetatik 1390. urtean Artiga izena agertu arte ez dugu beste berririk, nekazaritzarekin loturik behintzat. Gure inguru gertuenera begiratu beharko dugu zer gertatzen ari zen antzemateko.

Gipuzkoan, XIV. mendean, gorago aipatu dugun krisiaren eraginez sorturiko giro bortitz horretatik babesteko eta aurre egiteko, hiru erantzun mota[22] gauzatu ziren: hiri berrien sorrera; Gipuzkoako Ermandatearen osaketa; eta, guri gehien interesatzen zaiguna, auzuneek hiribildue-

20.- Ikus GARCÍA DE CORTAZAR, La época..., 194. or.: "Con relación al movimiento roturador, no son los señores, deseosos muchas veces de defender islotes forestales, asiento de riquezas ganaderas y refugio de caza, quienes lo estimularán de forma más decisiva; a ellos se debe, desde luego, algunas grandes empresas colonizadoras,pero el proceso de ir ganando terreno al bosque con el fin de ampliar los campos de cultivo es más bien obra de colonos y siervos que aspiran a mejorar su fortuna ya que esos predios son parcialmente enajenables por sus roturadores."

21.- Ikus MITXELENA, Apellidos..., 87. eta 150. or.: Soroeta, nekazaritzarako prestaturik dagoen lur sailen multzoa.

22.- Ikus ORELLA, Guipúzcoa..., 58-73 or.

kin eta nagusiekin gauzatu zituzten loturak eta, zenbait kasutan, sinatu zituzten auzokidetasun hitzarmenak. Azter ditzagun polikiago hiru jarrera hauek:

a) 1320. urtean, Oiartzungo bailarako biztanleen eskaera aintzat hartuz, Orereta izeneko lekuan *Villanueva de Oiarçun* **hiribildua** sortu zuen Alfonso XI.a erregeak. Biztanleen argudio nagusia seguritate eza izan zen, hots, baserri[23] sakabanatuetan bizi zirenez, erasoak gertatzen zirenean, ezin ziotela elkarri lagundu. Eta Oiarçunena ez zen kasu bakarra izan, XIV. mendean sortu ziren hamahiru hirietatik hamar, biztanleen eskaerari erantzun zioten[24]. Baserri munduaren atzerakada honekin lotuta, hiri munduaren aurrerakada nabarmena suposatu zuen eta, ondorioz, merkataritza eta industriaren indartzea.

b) 1329. urtean Donostia, Hondarribia eta Tolosa hiribilduek Gipuzkoako aurreneko **Ermandatea** bultzatu zuten, geroago Gipuzkoako gehienak bilduko zituena. Ermandatearen helburu nagusia nabarmena zen, alegia, hiriek eta hauek bultzatzen zuten merkataritzak behar zuten giro baketsu eta ziurra bermatzea, batez ere, bandozaleak —ganboatarren eta oñaztarren inguruan bildutako jauntxoak— bortizkeriaz baliatuz nagusitzen saiatzen ari zirenean.

c) Hirugarren jarrera **auzuneek** protagonizatu zuten, izan ere, auzuneek behar zuten babesa hiribilduen mugapean sartuz edo harremanak estutuz lortu baitzuten. Jarrera honen bitartez, udal mugapeak zehaztuagoak geratuko ziren eta, gero eta gehiago, mugaketa-agirietan zehazten. Honetan ere, hiru eredu ezberdin bereizten ditugu:

1348. urtetik 1396. urte bitartez, Tolosa hiribilduarekin inguruko herrixka eta auzuneek bat egin zuten. Auzuneen biztanleek hiriaren babesa lortu zuten eta auzokideek zeuzkaten eskubide berberak eskuratu zituzten. Aldi berean, ez zuten independentzi osoa galdu zenbait kargu eta zeuzkaten lur-eremua gorde egin baitzitzaien. Tolosan bezala, Arrasate[25], Ordizia, eta Seguran ere antzekoa gertatu zen..

2. Astigarragaren kasuan, 1382. urtean, auzune honetako biztanleek Murgiako Andrea zen Nabarra Martinez de Oñaz-ekin hitzarmena sinatu zuten, non babespen truke, Murgiako Jaunei (edo Andreari, kasu honetan bezala) urteko zerga ordaintzeko obligazioa hartzen zuten, hala nola, Jaurgoaren lur-sailetan lan egitera. Honelako hitzarmenak Erdi Aroan arruntak ziren eta honela esaten da 1447. urteko Gipuzkoako Ordenantzetan, alabaina, Astigarragakoa da ezagutzen dugun textu bakarra[26].

3. Azkenik, —eta eredu honetan kokatzen dugu San Martzial parrokiaren sorrera—, nekazal aiton-semeak eliz baten inguruan[27] antolatu ziren, hau da, elizaren orubean konzejua bildu, bertan arazoak eztabaidatu eta, modu berean, erabakiak hartu. Eredua hau nagusia izan zen Bizkaian non, XIV. mendean, Jaurerria hiribilduen eta elizateen inguruan antolatu zen oso-osorik[28]. Antzekoa ikusten dugu Altzako kasua. Sortu behar zen eliza

23.- Baserri hitza erabiltzen dugunean auzune edo etxe multzo esanahaia dauka.
24.- Ikus ARIZAGA, Urbanística..., 29. or.
25.- Ikus ACHÓN, A voz..., 51-64 or.
26.- Ikus AROCENA, Los Parientes..., 158. or.
27.- Ibidem, 34. or.
28.- Ikus GARCÍA DE CORTAZAR, Euskal Herria..., 146 or.: "Ordutik aurrera (1376.ean), Jaurerria nortasun sozial eta juridiko desberdineko bi esparrutan banatuta geratu zen. Batetik, hiribilduak, hesituta, Jaunaren eta, berehala, Gaztelako Erregeren ondare. Bestetik, Lur Laua, hesitu gabeko guneen aldea, populazio barreiatukoa, administratiboki elizateetan bildua."

ez zen erabat independientea izango, ama-eliz batera loturik baizik, lotura honekin dagoeneko ikusi ditugun bi helburu beteko direlarik: alde batetik, lur-eremu bat autoritate baten inguruan antolatu egingo da; beste aldetik, eliz-amak eta, berarekin batera, hiribilduak lur-eremu hori bere kontrolpean ipiniko du, zergak, aprobetxamenduak, etab., berenganatuz.

Kontestu honetan, —hirien eta jauntxoen arteko leihan, baita hirien artekoan ere—, ulertzen dugu, beraz, San Martzial parrokiaren sorrera. Krisiaren eraginez guztiek nahi zituzten errentak eta irabazkinak ziurtatu eta honetarako, ezinbestekoa zen lurraldeak mugatu eta kontrolatzea. Ziurtasun osoz ezin badugu esan ere, iruditzen zaigu luberritze lana (artiga) krisiaren bilakaerarekin batera zabaldu zela, hau da, XIII. mendearen bukaeran, edota, XIV. mendearen hasieran hasi zela, uzta txarrek eta goseak bultzatu baitzuen zenbait nekazari lur berrien bila. Kolono hauek, erabili gabe zeuden lurrak edo basoak artigatzera ekin zioten eta, XIV. mendearen bukaerarako, Altzan bizi ziren donostiar auzokideak ditugu. Hauek, beraz, ez zuten auzotasunaren beharrik, —Gipuzkoako beste zenbait herritan gertatzen zen bezala—, Donostiako auzokideak baitziren, baina, jasaten zuten presioaren eraginez, beraien egoera instituzionalizatzera behartu zituen, hots, parrokia sortzera.

San Martzial parrokia bultzatzeko altzatarrek eman zuten ahalmen-agirian azaltzen denez, bazegoen parrokia sortu aurretik nolabaiteko antolaketa: *"...seiendo aiuntados en el canpo que llaman Estibaus segun que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..."*[29]. Antolamendu bat bazegoen, beraz. Unibertsitatea biltzen zen kontzejuan. Juridikoki Altza Donostiako barrutian zegoela garbi dago, ahalmen-agirian azaltzen diren altzatarrak donostiar auzokidetasuna erakusten baitute eta, gainera, primiziak eta hamarrenak Donostiako elizei ordaintzen zizkieten. Dudarik ez, elizaren sorrerak jauzi kualitatiboa suposatu zuen instituzionalizazioaren bidean: usadioa eta ohitura idatzi egin zen, kargu berriak sortu... Hazkunde demografikoak eta altzatarren ahalmen ekonomikoaren handitzeak bideratu zuen eliz berriaren sorrera, honek ematen baitzuen prestigioa, bai kanpokoei begira baita altzatarren artean ere, elizan isladatuko baita altzatarren arteko mailaketa sozioekonomikoa (elizbarruko jarlekuen kokapenean, adibidez), itxura garai honetan oso garrantzitsua baitzen.

Azpimarratzekoa da ere, agirietan ez dela inon aipatzen bortzakeriaren presentzia, beste lekuetan ez bezala. Azaltzen den argudio bakarra Donostiatik dagoen urruntasuna da eta hau izango da, hain zuzen, artzapezpikuak emango duen arrazoia San Martzial eliza jasotzeko[30]. Ez da harritzekoa, bestalde, bortzakeririk ez aipatzea, ezaguna baita Donostian oñaztar eta ganboatar bandoen arteko borroken eragina oso eskasa izan zela. Donostiako karguak bete behar zirenean izan ziren, nola ez, nagusien arteko borrokak, baina tirabira hauetatik baino, traszendentzi handiagoko liskarrak Errenteria aldetik etorri ziren, beste hiribildu batekin, hain zuzen. Koska, muga izango da —portua eta, Molinao eta Pontika arteko lur-eremua— eta arazoa mendeetan luzatuko da nahiz eta 1456. urtean Lasarte eta Urdayaga jaunek behin betirako sententzia eman[31].

San Martzial parrokiaren sorrera lehenengo, eta San Pedrokoa gero (1457. urtean), Hondarribia eta Errenteriaren aurrean, lurraldearen antolatzaileak izango dira eta, era berean, hiribilduaren lurraldea kontrolatzeko baliabide bilakatuko dira, Donostiaren udal barrutiaren berrindartzearen adierazgarriak ditugu.

29.- Ikus I ERANSKINA, 3. agiria.

30.- Ibidem, 2. agiria.

31.- Ibidem, 11. eta 12. agiriak; BANÚS, El límite..., 309 or.: "...y es que en el siglo XIII y primera mitad del XIV la villa de San Sebastián pasó por un período de debilidad interna, frente a las tendencias escesivas de su periferia, debilidad de la que recuperándose después, da lugar a numerosos pleitos con los términos ya segregados de hecho."

1567. urteko grabatua. Georgio Housnaglio.

Uba eta Gomistegi: Engomeztarren nagusitasuna

Artigan izan ezik, badaude Altzan beste bi foku indartsu eta notizi asko eman dituztenak: bata, Urumea aldean, Uba eta Sarruetako inguruetan; bestea, Pasaiako portuan, Molinao eta Herrera, bi hauek Errenteriatik Donostiarako galtzada nagusian.

Aipamen zaharrena Urumea ibaiaren inguruan aurkituko dugu, birritan aipatu dugun Gartzia Ramirezen eskeintzean, Altzarekin batera aipatzen den **Soroeta**. Izaguirrek[32], toponimo hau, Altzako Sarrueta auzoan kokatu zuen, gaur egun Martutene bezala ezagutzen duguna. Hala ere, leku bera izan daitekeela onartuko bagenu ere, ezin dira bi izen horiek, Soroeta eta Sarrueta, etimologikoki, bat bestearekin lotu. Ez dugu batere garbi ikusten behintzat. Bata, Soroeta, deskriptiboa den bitartean, bestea, Sarrueta, badaiteke pertsona baten abizenarekin loturik dago. Zalantza hau arrazoitzeko, bi agiri ekarri nahi ditugu hona, Donostiako ordenantza bat, eta salmenta-agiri bat. 1489. urtean, Donostiako ordenantzetan[33], honela azaltzen zaigu: *"...Otrosi ordenamos e mandamos que todos los albures e otros pescados que mataren con redes en puerto grande e costa de Santa Clara hasta Zorriola e* ***puerto chico hasta Zarraota****..."*, hau da, Santa Katalinatik Sarruetaraino. Badugu, beraz, bokale dantza txiki baten ostean, Sarruetaren lehen aipamena, baina, nondik hartu du izena? Beste agiri batera jo beharko dugu erantzunen bila, 1344. urteko agiri batera, hain zuzen, non, Engomez familiaren agiri pribatuen artean[34], tolare baten jabea den Johan Sarrauta Donostiako auzokidea aipatzen den. Kasu honetan, agian, abizenak emango dio izena lekuari. Inguru honetan, adibi-

32.- Ikus IZAGUIRRE, Historia..., 355. or.
33.- Ikus I ERANSKINA, 15. agiria.34.- San Millan Agiritegia, 309. zbk.; Arg.: BANUS, Prebostes..., 201-202 or.
34.- San Millan Agiritegia, 309. zbk.; Arg.: BANUS, Prebostes..., 201-202 or.

de asko badaukagu non ikus dezakegun nola deitura bat leku izena bihurtzen den, Torrua baserria kasu. Izaguirrek[35] dioenez, San Millan Agiritegian badira lau agiri Sarrueta lekuaren salmentari buruz, eta berak azaltzen digu nola leku hau, 1575. urtean eta Engomeztar baten testamentuari esker, La Torre familiaren jabegora lotu zitzaion. Izaguirreren ustez, eta bat egiten dugu berarekin, desagertutako Torrua-zar eta Torrua baserriak, La Torre familiaren deituratik datorkie izena. Modu berean, Sarrueta izenarekin antzeko mailegua gertatu zela pentsarazten digu honek.

Baina, **Uba** da, dudarik gabe, Urumeako txoko honetan dagoen gunerik interesgarriena. Uba, bere idazkera ezberdinetan, abizena zahar-zaharra da Donostialdean, beti ere merkataritzarekin lotuta: Gil d'Ubago (1293); Pero Arnalt de Huhua (1302) edo Per Arnaut de Hua (1309). Gaur egun arte gorde da izen hau Ametzagainaren magalean: Ubegi baserri ederra, Uba baseliza, desagertutako Ubagoya eta Ubabea baserriak. Uba abizenak, ordea, denborarekin indara galdu zuen, eta bere lekua hartu zuen, nolabait batak bestea ordezkatuz, Engomez[36] deiturak. Eta honela, Martin Gomis-en testamentuan[37], 1362. urtekoa eta gaskoineraz idatzita, hiri barruan zituen jabegoak ezezik, aldirian zituen beste batzu aipatzen dira ere, batez ere, Uban zituen lurrak: *"E mani le part que io ey en lo bosc du Hue & en les berges du Hue, en lostau au dit Bernart & Guillemot den Gomis meys rrays, que ac partisquen rrayraumenz, mi ey per mi ey."*[38] Hau dugu, beraz, Ubari buruz, basoa eta ibarra bezala, egiten den aurreneko aipamena, eta adierazten digu nola hiriko familia garrantzitsuenak, —Engomez familikoek Donostiako harresiaren sarrera nagusian zeukaten dorretxea—, aldirian ere errotu rik zeuden.

Berrehun urte beranduago, 1556. urtean, Catalina Engomez de Montaot andereak Engomez oinetxearen maiorazkoa sortu zuenean[39], jabegoaren egitura berbera gorde zuen. Oraingo honetan, **Gomistegi** da, guri dagokigunez, aipamenik interesgarriena: *"...os hago la dicha donación de la casa casería e menzanales tierras montes e ganado de Gomistegui sita en jurisdiccion desta dicha villa en la parte dicha y llamada Pordeprat que es junto al lugar dicho de la Herrera sitos por estos nombres conocidos..."*.

Konturatu gabe, pasa gara Urumearen ibarretik Pasaiako badiara, agidanez, aintzinetik datorren bide zahar bati jarraituz. Hala da, Aita Larramendik, bere "Corografía de Guipúzcoa" izeneko liburuan[40], honela dio: *"...y en alas o gabarras chatas y anchas suben la vena para las herrerías del Urumea y bajan el hierro labrado a San Sebastián, y hoy los anclotes y anclas, piezas cada una de 74 a 76 quintales, como son las que se han labrado este año pasado. Baja también de tierra adentro el maderamen necesario para los bajeles al puerto de Hernani, y de aquí por el río hasta más abajo de Astigarraga, y de allí por tierra* ***hasta la Herrería del Pasaje.***" Textu honetan, beraz, adierazten zaigu bazegoela komunikabide garbi bat Urumeatik Pasaiara, Sarruetako portutik Herrerara. Larramendi XVIII. mendekoa izan arren, esaten duena baliogarria iruditzen zaigu aurreko mendeetarako ere. Bestela, hor

35.- Ikus IZAGUIRRE, Historia..., 356. or.; eta El Urumea..., 25. or.

36.- Engomez eta Gomiz, Gomez, Gomis, abizen bera da. Gaskoineraz, "en" aurrizkia jaunaren trataera da (Enbeltran kalearen izena Donostian), eta "on" esanahia dauka. Emakumezkoentzat "na" jartzen da aurrean, Narrika (Enriketa anderea) izenean ikus dezakegun bezala. Ikus FÉNIÉ, Toponymie..., 88. or.

37.- Ikus I ERANSKINA, 1. agiria.

38.- Ikus BANÚS, Prebostes..., 204 or.: "Y mando la parte que yo tengo en el bosque de Hue y en las riberas del Hue en la casa al dicho Bernardo y Guillemot den Gomis mis hermanos, que las repartan fraternalmente, mitad por mitad." (Banús-en itzulpena).

39.- Ibidem, 216-220 or.; San Millan Agiritegia, 335. agiria.

40.- Ikus LARRAMENDI, Corografía..., 33. or.

dugu, proba gisa, orain arte Engomez familiaren jabegoei buruz idatzi duguna. Oinetxe honen jabego egiturak, lotu egiten ditu, besteak beste, Altzako bi txoko, Gomistegi eta Uba, Portdeplat eta Sarrueta.

La Herrera

Herrerari buruz ezagutzen dugun lehen aipamena 1500. urtekoa da[41], Aro Modernoaren atarian, hain zuzen. Hala ere, motibo ugari ditugu pentsatzeko Pasaiako badiaren txoko hau aintzinatik okupaturik egon zela. Artzaiak negualdia igarotzera Irurdita sarobera hurbiltzen zirenetik, bazter hau jende askoren pasaleku eta bizitoki izan da. Hain zuzen ere, XII. mendean, gaskoinen etorrerarekin batera, leku hau populazioaren kokaleku finkoa bihurtu zen. **Portdeplat** dugu, agian, hemengo izen zaharra. Pasaiako badian, garai ezberdinetan bada ere, *port* hitza hiru toponimoetan aurki dezakegu: Port de Plat, Port de Laborda (gaur egun Bordalaborda itxurarekin gorde dena), eta Port de Lazon; hau da, *port* hitza duten toponimoak, badiaren bi muturretan aurkitzen dira. Ekialdeko muturretik etorriko zaigu lehen notizia. 1203. urtean, Alfonso VIII.a erregeak sortu berri zuen Hondarribiako hiribilduari, *Guillelmu de Lazon* eta bere lagunak ematen dizkio, Lezo izenarekin ezagutuko dugun lekuan bizi zirenak. Lazon abizena, geroago, zabaldu egingo da eta San Pedroko elizaren sorreran bizpahiru Lazon aurkitu ahal izango ditugu. Laborda ere, abizen zaharra dugu, eta bere orubea, Luzuriaga untziola dagoen lekuan kokaturik, Lezori lotuta egon da 1770. urtera arte. Portu hau oso garrantzitsua izango da Aro Modernoan. Laborda abizena, Lazon bezala, inguruetan zabaldu zen eta Donostian ere Laborda asko aurkitu ahal izango dugu.

Portdeplat-ek, ordea, Lazon eta Labordarekin gonbaratuz, beste bilakaera ezberdina jarraitu zuen. Gaur egun, Bidebietan dagoen Guardaplata etxeak, —XIX. mendean oraindik Port de Plat deitzen zena—, izenari eusten badio ere, ez dugu aurkitu abizen hau gorde duen familiarik. Zer gertatu zen? **Engomez** familian eta Gomistegin bilatu behar dugu erantzuna.

Gure ustez, Pasaiako badian, aurreneko bizileku iraunkorrak badiaren bi muturretan kokatu ziren, Lezon eta Herreran, han egin zitezkeen eta itsasontzientzako babeslekurik seguruenak. Bi portutxo hauen arteko lotura mendeetan ondo dokumentaturik egon da (emakume batelariena, adibidez), batipat, Hondarribia eta Donostiaren arteko komunikabide bezala. Badiaren hondoak, beste balizko arrazoien artean, basoen desagertzearekin loturik, ibai eta errekek eramaten zituzten hondarrez eta lokatzez bete egin ziren neurrian, bizilekuen kokapenak badiaren ahora hurbiltzen joan zitzaizkion, geroago, merkataritzaren gorakadarekin batera, "el Pasage de San Sebastian" eta "el Pasage de Fuenterrabia" portuak sortuko direlarik.[42]

Port de Plat, denboraren poderioz, Mendiola mendia, baserri bat edota Platako Farola/Faro de la Plata izendatzeko erabilia izango da, baina ez portua. Portua izendatzeko *La Herrera* lekuizena erabiliko da.

La Herrera, badiako beste portuak baino lehen, portu txiki bat bezala geratu zen, eta portua delako aipatua izango da behin eta berriro kartografia zaharrenean eta baita agirietan. Orain esandakoaren adibide 16. agiria dugu, non esaten zaigun nola, 1500. urtean, erregea Errenteriara joateko Herreran untziratu behar zuen.

41.- Ikus I ERANSKINA, 16. agiria.
42.- Ikus BANÚS, El límite..., 305. or.

Bestalde, Herrera toponimoaren etimologiari heltzen badiogu, begibistako da izen hau portuekin baino burniolekin lotuta dagoen erromantzerazko hitza dela. Hala ere, nahiz eta 1500. urtera arte ez agertu, pentsa genezake izen hau urte hau baino lehenagotik badatorrela. Europan, ezagutzen ditugun agirien arabera, indar hidraulikoa, burniolen mailu eta auspoei, XI eta XII. mendeetan zehar ezarri zitzaien[43]. Gipuzkoan, ordea, beranduago sartu zen teknika berria, XIII. mendearen bigarren erdialdera arte itxoin beharko baitugu aurreneko burniola hidraulikoen berri izateko. Baina, XIV. mendearen hasieran izango da, 1328. urteko *Fuero de Ferrerías* delakoa idatzi zenean[44], noiz Oiartzun eta Irungo bailaretan, burniola hidraulikoak nonnahi barreiatuak ikusi ahal izango ditugun. Diez de Salazar historiagilearen ustez[45], urte hauetakoak dira penintsulan aurki ditzakegun *Molino de la herrería* eta ***Molina Ferrera***[46] bezalako toponimoak. Hainbeste aipatutako gure *La Herrera* leku-izena ere garai honetakoa ote? Daitekeena da.

Kontuan izan behar dugu ere Herrera portu bat ezezik, Donostia eta Errenteriaren arteko galtzadaren puntu eta pasaleku garrantzitsu bat izan zela. Aipatu behar dugu hemen, besterik ez bada ere, Angel Maria Elortegi[47] pasaitarrak, Pasaiako toponimiari buruz idatzi zuen liburuan eta *La Herrera* toponimoaren burniolarekin lotutatako etimologia eskeini ondoren, esaten duena: "Bestaldetik, eta *galtzada* izate horri hobetoxeago datorkiola, penintsulako toponimian "zamariak ibiltzen diren bidea adieraziaz" aurkitzen dugu *Herrera* toponimoa"[48]. Hala ere, Herrera toponimoa zamariekin lotzen duen ustea ezin izan dugu, orain arte behintzat, ez oinarri linguistikoetan ezta dokumentaletan ere finkatu.

Molinao: *molino nuevo de Alça*

1448. urtean, Esteban de Landaguibel-ek, Hondarribiako auzokidea, "molino nuevo de Alça" errotaren jabetzatik zegokion erdia, beste erdiaren jabe zen San Bartolome komentuari saldu zion[49]. San Bartolome Komentuko Agiritegian aurkitzen den agiri honek, Molinaoko aipamenik zaharrena eta argiena, bazterrean uzten ditu orain arte toponimo honen etimologiaren inguruan egon zitezkeen zalantzak. Honela dio agiriak: *"...la qual rueda e molino es en el termino e iuridiçion de la dicha villa de Sant Sebastian, teniendose al braço de mar que entra por el Pasaie en el logar que se llama (txuriz), e se llama la dicha rueda* ***el molino nuevo de Alça,*** *e es conocido por el dicho nonvre, que se tiene por la parte de baxo a la dicha canal del Pasaie e por las otra partes e terminos conseiales de la dicha villa de San Sebastian...".*[50]

Molino nuevo eta Molinao izenak garaikeak dira (dagoeneko 1456. urtean, Donostia eta Errenteriaren arteko mugaketan Molinao bezala agertuko baita), eta esanahai bera daukate, batak gazteleraz eta gaskoineraz besteak. Antzeko erabilpena aurkitzen dugu, besteak beste, Altzagainan dagoen Casanao (inoiz ez Casa Nao edo Casas Nao) etxe-izenarekin. San Martzial eliza jasotzeko altzatarrek eman zuten ahalmen-gutunaren[51] sarreran *Miguel de Casanau* izena irakur dezakegu eta, agiri berean, lerro batzu beherago, ahalmena ematen dutenen artean,

43.- Ikus DIEZ DE SALAZAR: Ferrerías..., 62-73 or.
44.- Hondarribiako Udal Agiritegia, S.B., N.1, S.I, L.3, Exp.1, 9v-11v fol. Argt.: LARRAÑAGA, Colección..., 22-26 or.
45.- Iden, 69 or.
46.- María MOLINER (Diccionario de uso del Español. Gredos; Madrid, 1985) egileak cuchar herrera espresioa jasotzen du bere hiztegian, "cuchara de hierro" esanahia emanez.
47.- Ikus ELORTEGI, Pasaiako..., 114. or.
48.- Interpretazio hau, entzun ahal izan dugu guk ere Italiako Piamonte eskualdean, Ferrara toponimoari lotuta.
49.- Ikus I ERANSKINA, 9. agiria.
50.- Ikus LARRAÑAGA, Colección..., 98. or.
51.- Ikus I ERANSKINA, 3. agiria.



Miguel de Casanueba izena azaltzen zaigu. Beraz, *Casanau* eta *Casanueba* abizen bera dira, gaur egun Casanao bezala ezagutzen duguna.

Bestalde, Molinao hori Alçakoa dela zehaztu behar izateak badauka bere arrazoia, Pasaiako badian, gutxienez, beste Molinao bat baitago. Elortegiren liburuari esker ezagutu ahal izan dugu *molinao de Laborda* [52] errotaren berri. *Molinao de Laborda* agiri zaharrenetan aipatua izan da (1494-1608), eta *Molinao de Alça* izenaren garaikidea izan zen seguroenik. Hortik letorke, gure ustez, Molinao biak bereiztearen beharraren arrazoia. (Badago beste Mollinao bat Trintxerpen baina data zaharrena 1879. urtekoa da).

Molinaok errota-berri esan nahi badu, pentsa genezake beste errota-zahar bat bazegoela, baina, tamalez, ez dugu honen berri. Molinao ondoan, bazegoen beste errota bat, *molino de Yparraguirre* izenarekin ezagutua, 1760. urteko mapa batean[53] azaltzen dena, baina ez dugu uste errota hau Molinao baino zaharragoa denik. Dakigun gauza bakarra berria zela da, bai ber-

52.- Donibaneko Udal Agiritegia: B Sekz., 1. Negoz., 1. Libur., 2. Exp., 132. or. g.; Ikus ELORTEGI, Pasaiako. 130. or

53.- Ikus GOMEZ PIÑEIRO, Documentos..., 230. or.

tan zegoen zaharraren eraberritze osoa egin zutelako, bai zaharra zegoenean utzi eta berri bat leku berri batean eraiki zutelako, ala teknologia berri bat martxan jarri zutelako.

Gauza batean gaude ziur, Molinao marea-errotà bat zela. Aguirre Sorondo-k[54] honela pentsatzen du behintzat eta guztiz logikoa da. Kartografia zaharrean, Molinaoko kokapena behatzen badugu oso ondo ikus dezakegu nola itsas-gorak dakarren ura aprobetxatzeko egoera onenean aurkitzen den, batez ere garairik zaharrenetan, badiako hondokoak hain beteak ez zeudenean. Honek ez du esan nahi errekak zekarren ura ere jasotzen ez zuenik, baina, urtean zehar, ur iturri ziurrena itsas-gorak dakarrena da, errekaren ur-jarioa urtesasoia eta eguraldiaren gorabeheren menpe dagoelarik.

Egile berak azpimarratzen du nola marea-erroten egileak, teknikoak, frantsesak ziren, gaskoinak eta euskaldunak, eta honetarako bereziki deituak izaten ziren, bai errotak eraikitzeko, baita konpontzeko ere.

Marea-errotak eraikitzeak izugarrizko inbertsioak eskatzen zituen eta, honexegatik, jauntxo batek, berak bakarrik, ezin zuen errota bat eraiki. Ondorioz, nahitanahiezkoa zuten jauntxoen artean ados jartzea eta indarrak, kasu honetan diruak, bildu. Honela, XIV. mendèan, krisigaraian, erroten jabetza oso zatitua zegoen eta, zenbait kasutan, jabetzaren zatia zortzirena izatera iristen zen. 1448. urtean, *Molino nuevo de Alça* saltzen denean, egoera bestelakoa da. Krisia urrun samar geratzen zen eta espektatiba ekonomikoak hobeagoak ziren. Egoera honetan San Bartolme Komentuak gai ikusten du bere burua errotaren jabetza osoa bere gain hartzeko. Ekar dezagun gogora Bonnassiek[55] errotari buruz diona: "Errota hidraulikoaren hedapenak hainbat ondorio sortu zizkion gizarte-bilakaerari. Aurreneko errotak, sinple eta merkeak, askotan nekazariek berek edo nekazal komunitateek eraiki ahal izan zituzten (...) Gero, gero eta konplexuagoak ziren instalazioak egokitzeko beharrezko inbertsioak klase aberatsek baino ez zitzaketen har beren gain. Landan, ban-monopolio bihurturik, errotak jaunek nekazalgoa ekonomikoki zapaltzeko tresnetako bat izatera iritsi ziren". Beraz, errota-jabeek oinarrizko elikagai baten produkzioa kontrolatzen zuten eta, bide batez, diru-iturri ziurra eta oparoa lortzen zuten.

Konklusioak

Garai hau aztertzeko hamasei agiri bildu ditugu, —hasiera batez pentsa genezakeena baino gehiago,— eta bilketa lan honekin jarraitzea beharrezkoa ikusten dugu, ilunpean geratu diren gaiak argitzeko datu eta pista berriak emango dizkigutelakoan.

Bi mende hauetan aldaketa sakonak gertatu ziren Gizpukoan eta Altzan ere izan zuten bere islada. Garrantzitsuena luberritzea da. Artigaren inguruan nekazal aiton seme multzo bat bildu zen, Altzako lehen antolamendu instituzionala bultzatuko zuena. Parrokiaren sorrerak, hiribilduari estuki lotuta, Errenteriaren aurrean, Donostiako hiri dermioa indartu egingo du, Altzak historikoki izan duen muga izaera indartuz.

Parrokia, eta hasiera batean bere inguruan antolatu zen Artiga, Lur Lauaren lehen instituzioanlizazioa izan zen. Lehendikan bazegoen nekazal aiton semeen kontzeju ireki bat baina, momentu horretan, hiribildu bezala ezin zenez antolatu, elizate bezala antolatu zen, bere instituzioekin eta bere lur-eremuarekin.

54.- Ikus AGUIRRE SORONDO, Tratado..., 76. eta 731. or.; Liburu mardul honetan, Molinaori buruz ezezik Altzako beste zenbait errotei buruz ere informazio pila bat aurki daiteke.

55.- Ikus BONNASSIE, Erdi Aroko..., 61. or.

Bestalde, argi eta garbi esan behar dugu Altza eta Artiga ez direla sinonimoak. Artiga Altzako zati bat izan zen, erdigunean zegoena, baina berak bakarrik ez zuen Altza osatzen. Mende hauetan, beste errealitate ezberdinak aurki ditzakegu Altzako lur-eremuan, San Bartolome Komentua eta Engomez familiaren jabego zabalena, hain zuzen ere. Artiga, Uba, La Herrera, eta Molinao izan ziren Altzako nukleoak, bi ardatzetan artikulatuak: bat, ekialdetik mendebaldera doana, Hondarribia-Donostia lotzen dituena; bigarrena, hegoaldetik iparraldera doana, Hernani-Pasaia lotzen dituena.

I. ERANSKINA
ALTZA XIV. ETA XV. MENDEETAN: AGIRI-BILDUMA

1. 1362/7/30 Donostia

Martin Gomis-en testamentua (gaskoineraz).
San Millan Agiritegia: 308. Zbk.
Arg.: BANÚS, Boletín..., 202-208 or.

2. 1390/1/10

Iruñeako artzapezpikuak Altzako San Martzial eliza jasotzeko baimena ematen du.
Iruñeako Artzapezpikutegiko Agiritegia: Almandoz C/2031 5. Zbk.

3. 1390/4/20 Altza

San Martzial parrokia eraikitzeko auzokideen ahalmen-gutuna.
Iruñeako Artzapezpikutegiko Agiritegia: Almandoz C/2031 5. Zbk.

4. 1396/9/2

Altzako auzokideen eta Santa Maria eta San Bizente elizetako priore eta kabildoaren arteko kapitulazioak.
Iruñeako Artzapezpikutegiko Agiritegia: Almandoz C/2031 5. Zbk.,

5. 1397/7/6 Getaria

Gipuzkoako Ermandateak agintzen du deialdia dagoenean Ermandateko inor, bere jatorritik legoa bat baino areago, ez dadila Donostiari laguntzera joan.
Hondarribiako Udal Agiritegia: B Sek., 1. Ng., I Ser., 2. Lib., 4. Esp., 62o.g.-90o.a. folioak.
Arg.: BARRENA, Ordenanzas ..., 28-47 or.

6. 1409/7/12 Errenteria

Errenteria eta Murgiako Jaurgoaren arteko mugarriztatze-agiria, erregeak gutun batez martxoaren 13aren agindutakoa burutuz.
Errenteriako Udal Agiritegia: C Sek., 5. Ng., III Ser., 4. Lib., 1.
Esp. Arg.: CRESPO, Colección ..., 138-145 or.

7. 1425/11/12 Errenteria

Errenteria eta Murgiako Jaurgoak, mugak argitu eta normalizatzeko asmoz, uztailaren 18a eta azaroaren 12aren artean amankomunean dauzkaten mugak mugarriztatzen dituzte, lekukoak eta seinaleak berrikusiz.
Errenteriako Udal Agiritegia: B Sek., 1. Ng., 1. Lib., 20. Esp.
Arg.: CRESPO, Colección ..., 147-158 or.

8. 1439/9/14 Donostia

Pedro Ibañez de Salvatierra-k Juan de Guarnizo eta bere emaztea den Maria de Aspea-ri mahasti bat saltzen dio Donostiako hirian.
San Bartolome Komentuko Agiritegia: P. 48.
Arg.: LARRAÑAGA, Colección ..., 54. agiria

9. 1448/4/10 Altza

Esteban de Landaguibel-ek, Hondarribiako auzokidea, "molino nuevo de Alça"errotaren jabetzan duen erdia, beste erdiaren jabe den San Bartolome komentuari saltzen dio.
San Bartolome Komentuko Agiritegia: P. 47.
Arg.: LARRAÑAGA, Colección ..., 55. agiria

10. 1450/10/10 Donostia

Donostiako kontzejuaren gutun baten trasladoa, non agintzen duen Altzako lurrekoek beraien sagardoa saldu eta ontziratu egin dezaketen, bai Pasaiako portuan baita hiriko harresien barruan ere.
Donostiako Udal Agiritegia: Altza, 2. agiria
Aip.: BANÚS, El Archivo ..., 110. or. CRUZAT K/9
Aip.: BANÚS, El Archivo ..., 235. or. URIBE M/1/2

11. 1456/10/31 Errenteria

Errenteriak Martin Martinez de Lasarte eta Miguel Martinez de Urdayagari ahalmen osoa ematen die Pasaiako portuaren jabetza eta jurisdikzioaren inguran Donostiarekin duen pleitoan bitartekariak izateko; bidenabar, Martin Ibanez de Olaiz auzokideari ahalmena ematen diote lehen aipatutako horien aurrean behar diren agiriak eta lekukoak aurkezteko.
Errenteriako Udal Agiritegia: C Sek., 5. Ng., I Ser., 1. Lib., 1. Esp.
Arg.: CRESPO, Colección ..., 178-186 or.

12. 1456/11/12 Errenteria

Martin Martinez de Lasarte-k eta Miguel Martiínez de Urdayaga-k, portuaren jabetzarengatik Donostia eta Errenteriaren arteko gatazkan bitartekariak, sententzia ematen dute, bakoitzaren mugak eta jurisdikzioak adieraziz.
Errenteriako Udal Agiritegia: C Sek., 5. Ng., I Ser., 1. Lib., 1. Esp.
Arg.: CRESPO, Colección ..., 188-195 or.

13. 1458/3/20 Pasai San Pedro

Eliza sortu berria dela eta, Pasaiako auzokideen eta Donostiako apaizgoaren arteko hitzarmena.
Iruñeako Artzapezpikutegiko Agiritegia
Arg.: GOÑI, Fundación..., 15-19 or.

14. 1487/3/12 Donostia

Donostiako kontzejuak Altzako auzokideen aldeko sententzia ematen du, kontzejuko zaintzaileek hauei Pasaian egin zien sagardo-bahiketa zela eta.
Donostiako Udal Agiritegia: Altza, 2. dok. zbk.

15. 1489/7/7 Baeza

Donostiako udal ordenantzak, Errege-erregin Katolikoek berretsitakoak.
Arg.: Colección..., 63, 83, 86 y 87. or.

16. 1500

Korregidorearen agindua Errenteriako alkateak makila dutelarik ez daitezen erreginari ongi etorria ematera Herrerara joan.
Donostiako Udal Agiritegia CRUZAT N/11

Aip.: BANUS, El Archivo ., 127. or.

II. ERANSKINA
ALTZAKO TOPONIMOAK XIV. ETA XV. MENDEETAN



- SAN MARTZIAL eliza
- ARTIGAko etxeak (ez daude guztiak, ez dugu datorik falta direnak kokatzeko)
- Engomez familiaren jabegoa
- San Bartolome Komentuaren jabegoa
- Donostia eta Errenteriaren arteko mugaketan aipatutako etxea
- Donostia eta Errenteriaren arteko mugaketan aipatutako mugarriak
- Galtzadak eta bide nagusiak
- Herreratik Lezorainoko itsasbidea

BIBLIOGRAFIA

ACHÓN INSAUSTI, José Angel: *A voz de Concejo: Linaje y corporación urbana en la constitución de la Provincia de Gipuzkoa.* Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1995.

AGUIRRE SORONDO, Antxon: *Tratado de Molinología (Los molinos de Guipúzcoa).* Eusko Ikaskuntza; Donostia

ARIZAGA BOLOMBURU, Beatriz: *Urbanística Medieval (Guipúzcoa).* Kriselu; Donostia 1990.

AROCENA, Ignacio: *Los Parientes Mayores y las guerras de bandos en Guipúzcoa y Vizcaya.* In: Historia del País Vasco, 1. tomoa. Erein; Donostia, 1978.

BANÚS Y AGUIRRE, José Luis: *El Archivo Quemado.* Grupo Doctor Camino; Donostia, 1986.

—: *El límite oriental de San Sebastián y el Puerto de Pasajes.* In: Homenaje a Don Julio de Urquijo. R.S.V.A.P., III tomoa; Donostia, 1950.

—: *Prebostes de San Sebastián III. Documentos privados de la familia Engómez.* In: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián, nº 7. Grupo Doctor Camino; Donostia, 1973.

BARRENA OSORO, Elena: *Historia de la Vías de Comunicación en Gipuzkoa:* 1. Antigüedad y Medioevo. Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1991.

BONNASSIE, Pierre: *Erdi Aroko Historiarako berrogeita hamar hitz nagusi.* Gaiak; Donostia, 1993.

Colección de Documentos Históricos del Archivo Municipal de la M.N. tierra de Alça M.L. Ciudad de San Sebastián. Años 1200-1813. Donostiako Udala; Donostia, 1895.

COROMINAS, J.; PASCUAL, J.A.: *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico.* Gredos; Madrid, 1987.

CRESPO RICO, Miguel Angel; eta besteak: *Colección Documental del Archivo Municipal de Rentería. Tomo I.* Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1991.

DIEZ DE SALAZAR, Luis Miguel: *Ferrerías en Guipúzcoa (siglos XIV-XVI).* Haranburu-Editor S.A.; Donostia, 1983.

ELEJALDE ALDAMA, Félix: *Parroquia Altza San Martzial.* Instituto Doctor Camino de Historia Donostiarra; Donostia, 1990.

ELEJALDE, Félix; ERENCHUN, Juan: *Alza y Astigarraga.* Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala; Donostia, 1974.

ELORTEGI BILBAO, Angel Maria: *Pasaiako Toponimia.* Euskaltzaindia; Donostia, 1990.

Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco, vol. III. Auñamendi; Donostia, 1976.

FÉNIÉ, Bénédicte et Jean-Jacques: *Toponymie gasconne.* Editions SUD-OUEST; Luçon 1992.

GAMÓN y ECHEVERRIA, Juan Igancio: *Noticias Históricas de Rentería.* Errenteria, 1930.

GARCÍA DE CORTAZAR, José Angel, eta besteak: *Bizcaya en la Edad Media.* II Alea. Haranburu Editor, S.A.; Donostia, 1985.

GARCÍA DE CORTAZAR, José Angel: *Poblamiento y Organización social del espacio vasco en la Edad Media.* In: II. Euskal Mundu Biltzarra, II. Alea. Txertoa; Donostia, 1988.

–: *La época medieval.* In: Historia de España, 2. tomoa. Alianza Editorial; Madrid, 1988.

-: *Euskal Herria Erdi Aroan (II).* Gaiak; Donostia, 1991.

GÓMEZ PIÑEIRO, Javier, eta besteak: Documentos Cartográficos *Históricos de Gipuzkoa: I.* Servicio Geográfico del Ejército. Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1994.

GOÑI GAZTAMBIDE, José: *Catálogo del Archivo Catedral de Pamplona.* Nafarroako Gobernua; Iruñea, 1965.

–: *Fundación de la Iglesia de San Pedro de Pasajes (1457-1458).* In: Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián, 2. Instituto Doctor Camino de Historia Donostiarra; Donostia, 1968.

IZAGUIRRE, Ricardo de: Historia y Toponimia donostiarras. *El primer grupo de documentos referentes a San Sebastián de Hernani.* In: Homenaje a D. Julio de Urquijo. B.R.S.V.A.P., 3.zbka; Donostia, 1951.

-: *Notas a la Donación de Leire. Contribución al estudio de los orígenes de San Sebastián.* Euskalerriaren alde; Donostia, 1931.

-: *En torno a los orígenes de San Sebastián. El Urumea y los puertos donostiarras.* Monogafías de la Sociedad Oceanográfica de Guipúzcoa. Editorial Vasconia; Pasai San Pedro, d.g.

KEREXETA, Jaime de: *Linajes y Casas de Gipuzkoa.* Wilsen Editorial; Bilbao, 1993.

LANDA, Iñigo; ETXEBESTE, Juan Carlos: *Altzako Erdi Aroa izenez izen.* In: Altza, Hautsa Kenduz II; 69-84 or.; Altzako Historia Mintegia; Altza, 1994

LARRAMENDI, Manuel de: *Corografía de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa.* Editorial Amigos del Libro Vasco; Bilbo, 1985.

LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; TAPIA RUBIO Izaskun: *Colección Documental del Archivo Municipal de Hondarribia. Tomo I (1186-1479).* Eusko Ikaskuntza; Donostia, 1993.

LARRAÑAGA ZULUETA, Miguel; LEMA PUEYO, José Angel: *Colección de Documentos Medievales del Convento de San Bartolomé (San Sebastián) (1250-1515).* Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1995.

MARTINEZ DIEZ, Gonzalo: *Guipúzcoa en los albores de su historia.* Gipuzkoako Foru Aldundia; Donostia, 1975.

ORELLA UNZUE, José Luis: *Guipuzcoa y el Reino de Navarra en los siglos XIII XV.* versidad de Deusto; Donostia, 1987.

IBILLOS SALABERRIA, Mikel: *Estudio de los límites del antiguo municipio de Alza.* In: Alt· za, Hautsa Kenduz I; 13-49 or.; Altzako Historia Mintegia; Altza, 1988.

VIVES, Gabriela: *Catálogo de los Documentos del Archivo del Monasterio de San Bartolo· mé de San Sebastián.* Grupo Doctor Camino; Donostia, 1990.

YANGUAS Y MIRANDA, José: *Diccionario de Antigüeades del Reino de Navarra, III.* Diputación Foral de Navarra; Iruñea, 1964.

1390. urteko Altzatarren ahalmen-gutuna (XVI. mendeko trasladoa). Iruñeko Elizbarrutiko Agiritegia.